

Bergara 1936

BERGARA 2012. AROZTEGI ARETOA

Argazki erakusketa • Exposición de fotografía

Martxoaren 30etik apirilaren 29ra • Del 30 de marzo al 29 de abril

Erakusketa Bergarako Udal Artxiboak eta Intxorta 1937 Kultur Elkarteak elkarlanean antolatutakoa da. Artxiboak, dohaintzan jasotako Toribio Jauregiren argazkiak abiapuntu bezala hartuta, eta Intxorta 1937 Kultur Elkarteak ikertutakoarekin egin da. Bergara II. Errepublikaren bukaerako eta gerra zibilaren hasierako gertakizunak plazaratzeko baliogarria izan dadila espero dugu.

Informazioa osatzeko herritarren laguntza eskatzen dugu pertsonak eta lekuak identifikatz gure historiarenean tezagutzen gehiago sakontzeko.

Esta Exposición se ha organizado gracias a la colaboración entre el Archivo Municipal de Bergara e Intxorta 1937 Kultur Elkarte. Se ha realizado tomando como punto de partida la donación recibida en el Archivo de las imágenes de Toribio Jauregi y la investigación de Intxorta 1937 Kultur Elkarte. Esperamos que sirva para sacar a la luz los hechos acaecidos al final de la II República y comienzo de la guerra civil.

Solicitamos la ayuda de los ciudadanos y de las ciudadanas para identificar personas y lugares que nos permitan profundizar en el conocimiento de nuestra historia.

ERAUSKETA EXPOSICIÓN
Bergara 1936

ANTOLATZAILEA ORGANIZADOR
Bergarako Udal Artxiboa eta Intxorta 1937 Kultur Elkarte
Archivo Municipal de Bergara e Intxorta 1937 Kultur Elkarte

TESTUAK TEXTOS
Intxorta 1937 Kultur Elkarte

ARGAZKIAK FOTOGRAFÍAS
Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi Fondo.
Archivo municipal de Bergara. Fondo Toribio Jauregi:
15,16,17,18,19,20,21,22,23,24,25,26,27,28,29,30,31,32,33,
34,35,36,37,38,39,40,41,42,43,44,45,46,47,48,49,50,51,52 orrietan

INPRIMAKETA-EDIZIOA IMPRESIÓN-EDICIÓN
K3 Inprimategia

ARGITARAPENA EDICIÓN
Bergarako Udal Artxiboa eta Intxorta 1937 Kultur Elkarte
Archivo Municipal de Bergara e Intxorta 1937 Kultur Elkarte

LEGE GORDAILUA DEPÓSITO LEGAL
SS-157-2012

BERGARA 1936

TORIBIO JAUREGI (Bergara 1896-1969).

Argazkilaria izateaz gain kirolari handia izan zen. Zaletasunak kiroletako erreportari bilakatu zuen, gehien bat pilotan, txirrindularitzan eta mendizaletasunean. Bere kamararekin gure herriko gizartea eta gertaera politikoak eta sozialak islatu zituen.

2012eko erakusketa honetan Toribiok 1936tik 1939 bitartera ateratako argazkiak jarri ditugu. Gerra garai latza izan zen hura. 1936ko irailera arte Bergaran eratutako Defentsarako Batzordeko kideak erretratatu zituen. Ordutik aurrera gure herrian zeuden matxinatuek azaltzen dira irudietan.

Erakusketan nabaritzen da argazkiek duten kalitatea. Erretratuetan pertsonaren itxura primeran adierazten du.

Además de fotógrafo vocacional, fue un gran deportista, afición que marcaría en gran parte su estilo de reportero, cubriendo -además de sus tres grandes pasiones, la pelota, el ciclismo y la montaña-, el alma de la sociedad bergaresa de la época y los acontecimientos políticos y sociales que le tocaron vivir.

La muestra que se presenta en esta exposición da a conocer por primera vez al público, el fondo que nos legó relacionado con la guerra de 1936-1939 y los personajes que la protagonizaron. Hasta la caída de Bergara en manos de las tropas fascistas, retrató pormenorizadamente a los miembros de la Comisaría de Bergara y su Comité de Defensa de la República. Después, colocó sus cámaras con acertado pulso frente a los personajes que formaban el ejército que atacaría y destruiría Elgeta.

La calidad técnica de sus instantáneas unida a la fuerza y expresión de sus retratos, nos acercan íntimamente a aquella generación que le tocó vivir una guerra impuesta.

ERREPUBLIKAREN ETORRERA

Bergarak 1931n 9.307 biztanle zituen. Debagoieneko biztanle gehien zuen herria zen; Arrasatek, berriz, 7.720 biztanle zituen eta Oñatik 6.662.

1931ko apirilaren 12an udal hauteskundeak izan ziren. Orduko legediaren arabera boto-eskubidea izateko gizonezkoa eta 25 urtetik gorakoa izan behar zen. Gure herrian hauteskunde erroldan 2.046 hautesle zeuden. Emandako botoak: 1.701, hau da %83,18.

Izandako emaitzak honako hauek izan ziren:

PNV - EAJ	885	%52
Karlistak	646	%38
Errepublikazaleak	170	%10

Hauteskundeen ondorioak bi izan ziren. Alde batetik, Udalean Eusko Alderdi Jeltzaleak irabazi zuela. Hamazazpi zinegotzi hautatu behar ziren. Emaitzen arabera 10 Eusko Alderdi Jeltzalekoak ziren eta gainontzeko 7ak bloke monarkikoko kideak. Victor Ignacio Zubizarreta izendatu zuten alkate.

Bestetik, estatu mailan gertatutakoa: Alfonso XIII erregeak, herriaren konfianza galdu zuela pentsaturik, bere kargua utzi eta ihes egin zuen atzerrira. Espainia erreinua izatetik errepublika izatera pasatu zen. Bigarren Errepublika, hain zuzen.

II. ERREPUBLIKA GARAIA

1931ko apiriletik aurrera, gerra zibila 1936ko uztailean hasi arte, bost urte eta hiru hilabete bakarrik igaro arren, era askotako hauteskundeak eta botazioak egon ziren Bergaran. Egia esan, desoreka moduko bat gertatu

LA LLEGADA DE LA REPÚBLICA

Bergara tenía 9.307 habitantes en 1931. Era el pueblo con más habitantes de la cuenca del Deba; Arrasate tenía por aquel entonces 7.720 y Oñati 6.662.

El 12 de abril de 1931 se celebraron elecciones municipales. El derecho a voto según la legislación del momento lo podían ejercer solamente los hombres mayores de 25 años. En nuestro pueblo, en el censo electoral constaban 2.046 electores. Los votos emitidos fueron 1.701, es decir el 83,18%.

Los resultados electorales fueron los siguientes:

PNV - EAJ	885	%52
Carlistas	646	%38
Republicanos	170	%10

Estas elecciones tuvieron dos consecuencias. Por un lado, la mayoría obtenida por el PNV en el Ayuntamiento. De los 17 concejales que conformaban la Corporación municipal, el PNV obtuvo 10 concejales y el bloque monárquico 7. Victor Ignacio Zubizarreta fue nombrado Alcalde de Bergara.

En segundo lugar, estas elecciones tuvieron consecuencias a nivel estatal. El rey Alfonso XIII asumió que el resultado electoral reflejaba una falta de confianza en su persona y dejó el reinado y marchó al exilio. En España se instauró la II República.

LA II REPÚBLICA

Desde abril de 1931 hasta que estalló la guerra en 1936 transcurrieron 5 años y 4 meses. Fue una época plagada de elecciones y votaciones. Aunque sólo hubo unas elecciones municipales se realizaron otras cuatro

zen horien artean: udal hauteskunde bakarra izan zen bitartean, estatu-mailako lau ospatu ziren; eta horiez gain euskal estatutuari buruzko erreferendumean ere parte hartzeko aukera izan zuten berigarrek.

1. Gorteetako Diputatuak aukeratzeko hauteskunde

Errepublika sortu eta bi hilabete eta erdira, ekainaren 28an, ospatu ziren lehen hauteskunde hauek. Oraindik ere gizonezkoek soilik zuten boto-eskubidea eta, berau erabili ahal izateko, 25 urte beteta eduki behar zuten.

Estatu osoan errepublikazale eta sozialisten arteko koalizioak irabazi baldin bazuen ere, Bergaran emaitzak oso bestelakoak izan ziren. Bi koalizio aurkeztu ziren. Alde batetik, eskundar koalizioa, Lizarrako Estatutuaren aldekoa zena. EAJ-PNVk eta Karlistik osatzen zuten. Ezkertiar koalizioa, berriz, alderdi errepublikanoa, sozialistek eta ANVkoek osatzen zuten.

Hona hemen botoak:

Pildain, katoliko-foruzalea	1.385
Urquijo, tradicionalista	1.383
Leizaola, EAJ	1.380
Picavea, EAJ	1.375
Usabiaga, Union Republicana	575
Amilibia, Union Republicana	569
Garate, ANV	568
De Francisco, sozialista	566
Urgoiti, errepublikazalea	3
Castro, errepublikazalea	2
Zuriak	2

Lehenengo taldeak - tradicionalistak, EAJ-PNV, katoliko-foruzaleak- 1.380 boto lortu zituen, %70,76 eta

votaciones a nivel estatal. A esto hay que añadir, en nuestro caso, el referéndum sobre el Estatuto vasco.

1. Elecciones de Diputados a Cortes

A los 2 meses y medio de instaurarse la II República, el 28 de junio, tuvieron lugar las elecciones para elegir los Diputados a Cortes. Seguía manteniéndose la misma legislación electoral; por tanto, los electores debían ser varones mayores de 25 años.

Aunque a nivel estatal, estas elecciones las ganaron la coalición de republicanos y socialistas, a nivel local, el resultado fue bien distinto. Se habían presentado dos coaliciones: por un lado, la coalición de derecha, partidaria del Estatuto de Estella y formada por el PNV y los carlistas. En el otro lado, la coalición de izquierda, compuesta por partidos republicanos, socialistas y ANV.

Este es el resultado de las votaciones:

Pildain, Católico-Foralista	1.385
Urquijo, Tradicionalista	1.383
Leizaola, PNV	1.380
Picavea, PNV	1.375
Usabiaga, Unión Republicana	575
Amilibia, Unión Republicana	569
Garate, ANV	568
De Francisco, Socialista	566
Urgoiti, Republicano	3
Castro, Republicano	2
En blanco	2

El primer grupo, formado por Tradicionalistas, PNV y Católicos-Foralistas, obtuvo 1.380 votos, que supuso

bigarrenak -errepublikazaleak, sozialistak eta ANV- 570, %29,23.

Hauteskunde egunean Migel Aranburu berigararra tiroz hil zuten eta Garaje Eibarresekko autobus bat erre zuten.

2. Euskal Estatutuaren plebisitua, 1933ko azaroan
Lizarra Estatutu gisa izendatuko saiakera hark, gorabehera ugari izan eta gero, galdeketa publikoa izan zuen 1933ko azaroaren 5eko plebisituan. Baino hiru euskal probintzietan bakarrak gauzatu ahal izan zen, Nafarroa era arraro eta eztabaidagarri batean prozesu honetatik kanpora geratu zelako.

Hauteskunde hauek bi berrikuntza nagusi ekarri zituen: batetik, emakumeei bozkatzeko eskubidea onartu zitzaien eta, bestetik, gazteek parte hartzeko adina 25 urtetik 23ra jaitsi zen.

Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban izandako botoetan 411.756 pertsonak estatutuaren alde bota eman zuten, 14.196k kontrako bota eman zuten eta 63.951k abstentiu egin ziren.

Gure herrian, legediaren aldaketak direla medio, hauteskunde errolda 2.046tik 5.154era arte igo zen. Emaitzak honako hauek izan ziren:

- Estatutuaren alde: 4.875 boto (%94,59)
- Estatutuaren kontra: 13 boto (%0,25)
- Abstentzia: 279 boto (%5,41)

3. Gorteetako Diputatuak aukeratzeko hauteskundeak
Estatutuaren plebisitua egin eta egun gutxitara, II. Errepublikako gorteetarako bigarren hauteskundeetarako deia egin zen 1933ko azaroaren 19rako. Estatu mailako emaitzetan garailea CEDA (Confederación Española de Derechas Autónomas) eskuindar koalizioa izan zen.

el 70,76 % y el segundo, con Republicanos, Socialistas y ANV, 570 votos, con un 29,23%.

El mismo día de las elecciones mataron al bergarés Miguel de Aramburu de un tiro y quemaron un autobús del Garaje Eibarrés.

2. Plebiscito del Estatuto Vasco, noviembre de 1933

El llamado Estatuto de Estella, tras sufrir numerosos avatares, fue votado en referéndum el 5 de noviembre de 1933. Sólo se celebró en Gipuzkoa, Bizkaia y Álava. Navarra en cambio, por un proceso extraño y controvertido, no participó en el referéndum.

Es preciso señalar que estas votaciones tuvieron novedades importantes. El derecho de voto de las mujeres es admitido por primera vez. Además de esto, la edad mínima requerida para votar baja de 25 a 23 años.

Según los datos globales del referéndum en Gipuzkoa, Bizkaia y Álava, votaron a favor del Estatuto 411.756 personas, 14.196 lo hicieron en contra, y 63.951 se abstuvieron.

En Bergara, debido al cambio en la legislación electoral, el censo pasó de 2.046 a 5.154 electores. Los resultados del escrutinio fueron los siguientes:

- A favor del Estatuto: 4.875 votos (94,59%)
- En contra del Estatuto: 13 votos (0,25%)
- Abstención: 279 votos (5,41%)

3. Elecciones de Diputados a Cortes

A los pocos días del plebiscito del Estatuto se celebraron elecciones para elegir los Diputados a Cortes, el 19 de noviembre de 1933. En el estado, las elecciones las ganó la coalición de derecha llamada CEDA (Confederación Española de Derechas Autónomas).

Bergaran %80,07k eman zuten botoa; 4.124k hain zuen. Emaitzak hauexek izan ziren:

EAJ-PNV	2.424	%58,79
Karlistak	881	%21,36
Sozialistak	558	%13,53
Union Republicana	232	% 5,63
EAE-ANV	24	% 0,58
Partido Comunista	4	% 0,10
Abstentzioa	1.026	%19,21

4. Udal Korporazioaren dimisioa. 1934ko iraila

Gobernu zentralak ardoari zergak kentzea erabaki zuenean, udalek gogotik egin zioten kontra. Izan ere, erabaki horrekin Udalak diru-sarrerarik gabe gelditzen ziren. Udalen autonomia eta kontzertu ekonomikoak zioenaren kontrakoa zen. 1934ko udan protesta mobilizazio handia egin zuten kontzertu ekonomikoa defendatzeko, eta udalek izendatutako probintziako organismo batzuk sortu ziren, Foruen defentsan haien ordez jardun zezaten. Hasieran nazionalistek eta foralisteek bultzatu zuten mugimendu hori, aurrerago ezkertiarrek ere alde azaldu ziren.

1934ko abuztuaren 12an Gipuzkoako udaletan Batzorde bat aukeratzeko hauteskundeetako deia egin zen. Gobernadore Zibilak debekatu egin zituen eta Guardia Zibilak Bergaran antolatutako ekitaldia egitea galarazi zuen. Ignazio Zubizarreta alkatea atxilotu eta bere kargutik kendi zuten. Irailaren 7an EAJko 10 zinegotziek euren karguak utzi zitzuzten; udal gobernuan zinegotzi tradizioanalistak bakarrik gelditu ziren.

Urriaren 2tik aurrera Jose Zabala Juaristi izan zen Alkate. Azaroaren 10ean eta 14ean Gobernadore Zibilak izendatutako 10 zinegotzi berri sartu ziren. Egoera honek 1936ko martxora arte irau zuen.

En Bergara, votaron 4.124 personas, lo que suponía el 80,07% del censo electoral. El resultado fue el siguiente:

EAJ-PNV	2.424	58,79%
Carlitas	881	21,36%
Socialistas	558	13,53%
Union Republicana	232	5,63%
ANV	24	0,58%
Partido Comunista	4	0,10%
Abstención	1.026	19,21%

4. Dimisión de la corporación municipal. Septiembre de 1934

Los Ayuntamientos se opusieron frontalmente a la decisión del Gobierno central de suprimir el impuesto sobre el vino. Esta decisión suponía dejar a los Ayuntamientos sin una importante fuente de ingresos. Se entendía además como una injerencia en la autonomía local y contraria al concierto económico. El verano de 1934 se llevaron a cabo numerosas movilizaciones en defensa del concierto económico. Se creó así mismo un organismo provincial por parte de los Ayuntamientos; en un principio estaba formado por nacionalistas vascos al que se sumaron las izquierdas.

El 12 de agosto de 1934, se convocan elecciones en los ayuntamientos guipuzcoanos para elegir la Comisión Intermunicipal. El Gobernador Civil las prohibió. El acto de Bergara es impedido por la Guardia Civil; el alcalde, Ignacio Zubizarreta es detenido y destituido. El 7 de septiembre dimiten los 10 concejales nacionalistas, quedando en el ayuntamiento únicamente los tradicionalistas.

A partir del 2 de octubre, se hace cargo de la alcaldía José Zavala Juaristi. El 10 y el 14 de noviembre toman posesión los 10 concejales nuevos nombrados por el Gobernador Civil. Esta situación se mantendrá hasta las elecciones municipales de marzo de 1936.

5. 1934ko greba orokorra. Urriaren 5etik 12ra

1934ko urrian, eskuineko gobernuaren politikaren kontra, iraultza saio bat egiten ahalegindu ziren ezkertiarak estatuko zenbait lekutan, Katalunian eta Asturiasen bereziki. Gipuzkoan Arrasatekoak eta Eibarkoak izan ziren greba iraultzaileak. Bi herri hauetan langileek armarekin Errepublika Soziala -sistema kapitalista deuseztatzea- aldarrikatu zuten.

Gipuzkoan greba orokorradak arrakasta izan zuen. Ondorioak hogei pertsona hilda (horietako lau Arrasaten) eta mila bat pertsona atxilotuta.

Bergaran greba orokorraren lanuztea erabatekoa izan zen zazpi egunez, ez zen ezelako liskarrik izan eta UGT-ko (Union General de Trabajadores) sei lagun atxilotuak izan ziren. Eusko Langileen Alkartasuna- Solidaridad de Trabajadores Vascos (ELA-STV) sindikatuak herriko lantegi guztietan lanuztea egin zuen. Union Cerrajerako Altos Hornoseko langileei lan kontratuak eten egin zizkieten eta greba bukatutakoan berriz lan eske joan behar izan zuten. Frente Popularrak onartutako amnistia-rekin 1936ko martxoaren 1ean 24 langile berriz ere onartu behar izan zituzten.

6. 1936ko otsaila - martxoko udal hauteskundeak

1936ko hasierako hauteskunde haietan muturreko jarrerek nagusitu ziren. Ezkerreko alderdiek Frente Popularra eratu zuten; errepublikazaleak, sozialistak, komunistak eta EAE-ANV alderdia elkartuta. Eskuinean, berriz, Iraultzaren aurkako frontea (Frente Contrarrevolucionario) eratu zen. Euskal Herrian EAJ-PNV alderdia, eliza katolikoaren presio handiak jasan arren, ez zen eskumako blokean sartu eta hirugarren aukera bezala aurkeztu zen.

Estatu mailako udal hauteskundeak Frente Popularrak irabazi zituen. Bergarako emaitzak hauexek izan ziren bi egunetan egindako bozketaetan:

5. Huelga general de 1934: del 5 al 12 de octubre

En octubre del 34, hubo un intento de revolución protagonizado por las fuerzas de izquierda, en contra de la política derechista del gobierno. Tuvo fuerza sobre todo en Cataluña y Asturias. En Gipuzkoa hubo una huelga generalizada, con Arrasate y Eibar como focos más importantes, en estos dos pueblos, los trabajadores se armaron y proclamaron la abolición del sistema capitalista y la instauración de una república socialista.

Esta huelga se saldó con 20 personas muertas, cuatro de ellas en Arrasate y cerca del millar de detenidos. En Bergara, la huelga general fue total durante 7 días.

No hubo incidentes graves. Solidaridad de Trabajadores Vascos (STV) se sumó a la huelga en todas las fábricas de Bergara. Detuvieron a 6 trabajadores de la UGT. A los trabajadores de Altos Hornos de la Unión Cerrajera, se les anularon los contratos de trabajo y tuvieron que solicitar el ingreso de nuevo. A raíz de la amnistía concedida por el Frente Popular el 1 de marzo de 1936, 24 trabajadores fueron readmitidos.

6. Elecciones municipales: febrero-marzo de 1936

En estas elecciones municipales se presentan ya dos bloques claramente antagónicos. Por un lado el Frente Popular, que aglutinaba a los partidos de izquierda y por el otro, el Frente Contrarrevolucionario, con los partidos de derecha contrarios a la revolución. En el País Vasco, el PNV se declaraba confesional y pese a las fuertes presiones de la iglesia, no entró a formar parte del bloque contrarrevolucionario y se presentó como una tercera vía.

A nivel estatal, las elecciones las ganó el Frente Popular. En Bergara, éstos son los resultados en los dos días de votación:

Otsailaren 16an

EAJ-PNV	2.050	%48,24
C. Contrarrevol.	1.320	%31,06
Fronte Popularra	879	%20,68

Martxoaren 1ean

EAJ-PNV	2.994	%68,93
C. Contrarrevol.	Ez zen aurkeztu	
Fronte Popularra	1.018	%27,91

16 de febrero

EAJ-PNV	2.050	48,24%
C. Contrarrevol.	1.320	31,06%
Fronte Popularra	879	20,68%

1 de marzo

EAJ-PNV	2.994	68,93%
C. Contrarrevol.	No se presentó	
Fronte Popularra	1.018	27,91%

GERRA

1. Hasiera

Errepublika aldarrikatu zen momentutik kontrako mugimenduak egon ziren eta 1936ko hauteskundeetan Fronte Populararen garaipenaren ondorioz areagotu egin ziren. 1936ko uztailaren 18an, militar, errekete, falangista eta legionario batzuek altxamendu armatua hasi zuten.

1936ko uztailaren 19ko greba orokorraren ondorioz, Gipuzkoako indar ezkertiarrak ahal zuten armamentuaz jabetu ziren, altxamenduari aurre egiteko. Donostiako militarrak lehenengo egunetako zalantzatan izan ziren; azkenean miliziano talde baten irteera -uztailaren 21eko goizaldean, Gasteizerantz abiatu zirenean- aprobetxatu zuten matxinatzeko. Erresistentzia handia aurkitu zuten: hiriko eraikin esanguratsuenetan ezkutatzera behartu zituzten (Kontxako Kasinoan [egungo udaletxea], Maria Cristina Hotelean edota Gobernu militarrean). Uztailaren 28ra arte luzatu ziren borrokaldi bortitzak eta matxinaturek amore eman zuten inprobisatutako miliziaren aurrean. Azken hauek matxinatuen armamentua eskuratu zuten. Hasierako egun horietako borroketan hil zen lehenengo berigararra: Crescencio Lopez, CNTkoa zena.

GUERRA

1. Estalla la guerra, 18 de julio de 1936

Desde que se proclamó la II República en 1931, los movimientos en contra habían sido constantes pero se intensificaron aún más con la victoria del Frente Popular en las elecciones municipales del 1936. El 18 de julio, algunos militares, requetés, falangistas y legionarios darán un golpe de estado.

En Gipuzkoa se convocó huelga general para el día 19 y las fuerzas izquierdistas se armaron para hacer frente al levantamiento. Los militares de San Sebastián estuvieron dudando de la postura a adoptar hasta que el día 21 al amanecer, un grupo de milicianos salió de la ciudad hacia Vitoria, momento en el que aprovecharon para sublevarse. La resistencia fue feroz y tuvieron que refugiarse en sendos edificios: el Casino, el Hotel María Cristina y en el Gobierno Militar. Los duros combates duraron hasta el 28 de julio, cuando los sublevados se rindieron ante las fuerzas compuestas por los milicianos. Éstos aprovecharon las armas requisadas. Durante estos días murió el primer bergarés: Crescencio López, de la CNT.

Bergaran Santa Marina eguna ospatzen ari ziren. Arratsaldean parrokietako kanpai-soinuak jo zituzten. Gerraren abisua eman ondoren, herria defendatzeko eta altxatuen aurrerapenak galarazteko, lehenengo egunetan Seminarioko arkueetan 175 gazte milizianok izena eman zuten. Lehenengo egunetan EAJ-PNVko kideak zain zeuden.

Bergarako erreketEEK kolpe militarrak Donostian garaipena lortu ez zuela ikusita hainbat erabaki hartu zituzten. Batzuek herritik ihes egin zuten eta gerora Zumalakarregi tertzia sortu zuten. Beste batzuk, ordea, herrian gelditu ziren; gelditu zirenen artean Bergarako Frente Popularrekoek 37 atxilotu zituzten, Sindicato Libre Profesionalaren egoitzan aurkitutako pistola eta eskuko bombengatik. Epaitegiko kartzelan eta Seminarioan egon ziren. Matxinatuak Bergarara hurbiltzen ari zirela jakitean, Frente Popularrekoek 1936ko irailaren 19an Bilbora eraman zituzten.

2. Errepublikaren Defentsarako Batzordea.

Egoera korapilatsua zenez, agintaritza falta eta borrokak zirela medio, uztailaren bukaeran Gipuzkoako Errepublikaren Defentsarako Batzordea eratu zen; batzorde orokor honek bultzatuta herriean ere batzordeak osatu ziren. II Errepublikaren alde egiteko partidu politiko eta sindikatuak elkartzea zen helburua. Parte hartzen zuenak: Partido Socialista, JSU (Juventudes Socialistas Unificadas), Izquierda Republicana, EAJ-PNV, EAE-ANV, Union Republicana, CNT, UGT, STV, Ezquerra Vasca Federal eta Partido Comunista.

Bergaran Errepublikaren Defentsarako Batzordea 1936ko abuztuko lehenengo egunetan eratu zen. Batzordeko kideak partidu politiko eta sindikatuko ordezkariek ziren: EAJkoak, Solidarioak, UGTkaoak, Alderdi Sozialistakoak eta Errepublikarrak hain zuzen. Lehendakaria Victoriano Telleriarte errepublikarra zen eta ordura arteko Alkatea, Ignazio Zubizarreta, batzordekide zen.

En Bergara, el 18 de julio se celebraba la fiesta de Santa Marina. A la tarde, tocaron las campanas de las parroquias. Inmediatamente después de conocer el inicio del golpe militar, comenzó el alistamiento de los voluntarios; en los bajos del Seminario. 175 jóvenes milicianos dieron su nombre para defender la República. Los miembros de EAJ-PNV se mantuvieron a la expectativa.

Los requetés bergareses al ver que no triunfaba el golpe militar en San Sebastián tomaron distintas decisiones; unos huyeron de Bergara y posteriormente crearon el Tercio Zumalacárcer. Otros en cambio, se quedaron en Bergara. Entre éstos, el Frente Popular de Bergara detuvo a 37 personas por las pistolas y bombas de mano que encontraron en la sede del Sindicato Libre Profesional. Les retuvieron en la cárcel del Juzgado y en el seminario. Más tarde, el 19 de septiembre, ante el avance de los sublevados, los miembros del Frente Popular les llevaron a Bilbao.

2. Junta de Defensa de la República

La situación era complicada por la falta de autoridad y los combates. A finales de julio se formó en Gipuzkoa la Junta de Defensa de la República. A instancias de la misma se crearon también juntas municipales. Su objetivo era velar por la defensa de la república y estaba formada por representantes de los siguientes partidos políticos y sindicatos: Partido Socialista, JSU (Juventudes Socialistas Unificadas), Izquierda Republicana, EAJ-PNV, ANV, Unión Republicana, CNT, UGT, STV, Ezquerra Vasca Federal y Partido Comunista.

En Bergara, la Junta local se constituyó a primeros del mes de agosto. Estaba compuesta por representantes de partidos políticos y sindicatos; del PNV, STV, UGT, Partido Socialista y republicanos. El presidente fue el republicano Victoriano Telleriarte; se integra también, el alcalde Ignazio Zubizarreta.

Antolatzeko garaian, zerbait talde sortu ziren aipatutako Errepublikaren Defentsarako Batzordearen menpe, momento haietan hartu behar ziren erabakiak gauzatzeko eta eguneroko bizitza eta herriko defentsa egin ahal izateko. Gerrako lantaldea izan zen garrantzitsuena eta 175 milizianok osatzen zuten; horietako gehienak ELA-STVko eta Fronte Popularreko kideak ziren.

Gerrako lantaldeez gain, beste batzuk ere eratu ziren: horridurak, erregistroak, Gurutze Gorria, zapadoreak, garraioak, zaintza/ordena publikoa, telefonoak eta finantzak.

Gerra aurrera zihohan eta egun horietan EAJ-PNVko eta ELA-STVko 30 bat lagun Loiolako basilikara joan ziren. Han ari ziren EAJko eta ELAko kideak instrukzio militarra jasotzen. Aurrerago Loiola batailoia izango zenaren lehengo urratsak izan ziren.

Aipatzeko da baita ere Ormaiztegiko trenbideko Zubia 1936ko irailaren 15ean eta 16an Bergarako Labe Garaietako sei soplestistak moztu zutela. Zubia botatzea kolpe gogorra izan zen matxinatuentzat, trenbidea garrantzitsua baitzen soldaduak eta armak garraiatzeko. Gertaera horrek aurrerabidea galarazten zien. Mola jenerala bera joan zen Ormaiztegira, zubia nola konpondu zitekeen ikustera. Zubia berehala konpontzea agindu zuen, eta hura mozteko ausardia izan zuten langileei "eskarmentu eredugarria" ematea. Dirudienez, parte hartu zuten soplestistetatik bakarra aurkitu zuten, oñatiarra bera. Bergarako Labe Garaietako lantegian atxilotu eta gero Ormaiztegiko zubiaren ondoan fusilatu zuten. Bergarako Labe Garaietako beste batzuk, berriz, Bizkaira joan ziren matxinatuak herrian sartu aurretitik. Zubia konpondu zutenerako 1937ko otsaila zen.

Matxinatuak Bergerara hurbiltzen ari ziren. Milizianoak herria utzi baino lehen kartzelan zegoen Pedro Tellería (Antzuolako sakristaua zena) karlista hil zuten.

En el seno de este Comité se crearon diferentes comisarías para ejecutar las decisiones que se tomaban en el día a día. La Comisión de Guerra fue la más importante y estaba compuesta por 175 milicianos; la mayoría eran de STV y del Frente Popular.

Además de la comisión de guerra se formaron otras: Abastos, Registros, Cruz Roja, Zapadores, Transportes, Vigilancia/Orden Público, Teléfonos y Finanzas.

Para estas fechas, la guerra seguía su curso y unas 30 personas del PNV y de STV fueron a la basílica de Loyola para recibir instrucción militar. Era el embrión del posterior batallón Loyola.

También es preciso recordar que los días 15 y 16 de septiembre, 6 soplestistas de Altos Hornos cortaron el puente del tren en Ormaiztagi. Fue un duro golpe para los sublevados, ya que les dificultaba el transporte de soldados y armamento. El general Mola fue a Ormaiztegi a ver la situación y ordenó arreglar el puente lo más pronto posible, anunciando un castigo ejemplar para los que lo habían hecho. Parece ser que de los 6 soplestistas sólo consiguieron detener a uno de ellos (que era de Oñati) y le fusilaron al lado del puente de Ormaiztegi. Otros trabajadores de Unión Cerrajera huyeron hacia Bizkaia antes de la entrada de los sublevados en Bergara. No consiguieron arreglar el puente de Ormaiztegi hasta febrero de 1937.

Los sublevados avanzaban hacia Bergara. Algunos milicianos, antes de abandonar el pueblo, mataron al preso carlista Pedro Tellería, que era el sacristán de Anzuola.

3. Matxinatuak Bergaran, 1936ko irailaren 22an.

Matxinatuak Bergaran sartu baino lehen, irailaren 19an eta 20an milaka herriarrek ihes egin zuten. Horietako batzuk behintzat, ez ziren berriro bueltatuko.

1936ko irailaren 21ean Los Arcos Teniente Koronelaren zutabeak Antzuola hartu zuen; eta 22an, Tejero kaptainaren gidaritzapean, America errejimentuko zazpi konpainia eta Falange Españolako zenturia batzuek San Migel menditik Bergarara sartu ziren.

Egun berean, 1936ko irailaren 22an, Perez Salas komandantearen gidaritzapean, Montejurrako tertzioen 4 konpainia eta Azkoitiatik zetozenten Mendiko 8.eko bataloioko 2 konpainia Karakatetik maldaz behera jaitsi ziren, iluntzean Soraluze hartzeko. Handik Osintxura abiatu ziren.

Matxinatuak Bergara hartu ondoren, atxilotek, errepresioa eta fusilamendua hasi ziren. Lehenengo egunean "gorri" bat atxilotu eta bi aldiz fusilatu zuten; lehenengoz Labegaraietako pilotaleku eta bigarrenez Deskargan.

Lehenengo egunean bertan ikastolako materiala eta ondasunak egoitzatik (gaur egun batzokia dagoen tokian) atera eta erre egin zitzuten. Ikastola Gipuzkoako hirugarrenaren zen, 1933ko urtarrileko 8an zabaldu zen, EAJren eta Emakume Abertzale Batzaren laguntzarekin. Maria Ojanguren andereñoak ematen zituen eskolak euskarak. Gerra ondoren herrira bueltatutakoan, Maria Ojanguren zigortu egin zuten, Bilbora erbesteratuz bi urtez.

Urriaren hasieran Bergarako 14 herriar atxilotu zitzuten eta, fusilatuak ez izateko, Ramiro Llamas Komandante Militar Epaleari eskupetik dirua ordaindu behar izan zuten. Era berean, urriaren 20an Osintxu auzoko 7 pertsona atxilotu zitzuten: Anbrosio Agirre, Jose Garai-koetxea, Rikardo Zangitu Akizu, Felipe Garmendi eta

3. Los sublevados entran en Bergara, 22 de septiembre de 1936

Antes de que entraran las tropas sublevadas en Bergara, los días 19 y 20 de septiembre miles de personas huieron. Algunas no volvieron nunca.

El día 21 de septiembre, la columna del teniente Los Arcos entró en Antzuola. Al día siguiente, siete compañías del regimiento América, dirigidas por el capitán Tejero, más algunas centurias de Falange Española, llegaron a Bergara atravesando el monte San Miguel.

El mismo día, el 22, cuatro compañías del Tercio de Montejarra mandadas por el comandante Pérez Salas, más dos compañías del batallón de Montaña nº8, bajaron por Karakate hasta llegar a Soraluze al anochecer. De allí siguieron a Osintxu.

Cuando los sublevados tomaron Bergara, empezaron las represalias, detenciones y fusilamientos. El primer día detuvieron a un "rojo" y le fusilaron dos veces; la primera en el frontón de Altos Hornos y la segunda en Deskarga.

La ikastola de Bergara-Aritznoako Eusko-Ikastola- creada el 8 de enero de 1933 y situada en el lugar que hoy ocupa el Batzoki, fue asaltada y quemadas las pertenencias y libros de sus niños alumnos. María Ojanguren la maestra de la Ikastola,-que dedicaría su vida a esta tarea- militante de "Emakume Abertzale Batza", tras la vuelta a la villa al acabar la guerra fue castigada con el destierro a Bilbao durante dos años.

A primeros de octubre detuvieron a 14 bergareses; para no ser fusilados pagaron fuertes sumas de dinero al Juez Comandante Militar Ramiro Llamas. Así mismo, el 20 de octubre de 1936 fueron detenidas 7 personas del barrio de Osintxu: Ambrosio Agirre, José Garai-koetxea, Ricardo Zangitu Akizu, los hermanos Tomás

Tomas eta Ildefonso Iñarra anaiak. Felipe Garmendia aske utzi zuten eta beste seiak Parisgainera eraman zituzten, bertan fusilatzeko. Anbrosiok ihes egitea lortu zuen arren, beste bostak fusilatu egin zituzten. Gerrako lehenengo hilabete horietan beste 4 bergarar ere fusilatu zituzten: Andres Alberdi, Gregorio Larrañaga Aranzabal, Francisca Oianguren eta Faustino Garitano Askasibar (azkeneko biak Arrasaten bizi ziren).

Jendea kontrolatzeko, Alkatetzatik etxebizitzen jabeei agindu zitzaien 1936ko irailaren 22a baino lehen alde egindako euren etxeetako maizterren zerrenda egitea. Danera 1.253 pertsona azaltzen dira zerrenda horietan.

4. Bergararrak batailoia eta tertzioetan

1936ko urrian zehar batailoia eta errekketeen tertzioak osatu ziren.

- **Loiola batailoia:** Gernikan formatu zuten batailoia eta agindu berrien zain gelditu ziren. Euzko Gudarostean osatutako lehen batailoia izan zen. Hauexek ziren bertako bergararrak, bestea bestea: Lino Lazkano komandantea, Markos Azkarate kapitaina eta Jose Lete, Kepa Yarza, Hilario eta Agustin Unzurrunzaga tenienteak.

- **UHP batailoia:** Bilbon sortu zen. Hirugarren konpainian oñatiarrak eta bergararrak zeuden. Pako Unzurrunzaga kapitaina zen eta Ramon Arruabarrena eta Ignazio Herran tenienteak.

- **Zumalakarregi Tertzioa:** Errekete Tertzio honen bigarren konpainian bergararrak zeuden. Bere kapitaina Gilberto Amosarrain zen.

5. Elgetako frontea egonkortuta (1936ko urriaren 4tik 1937ko apirilaren 24ra arte)

Elgeta toki estrategiko erabakigarría da Bizkaian sartzeko. Bertan zegoen fronteak 6 hilabete iraun zuen. Matxi-

e Idelfonso Iñarra y Felipe Garmendia. Este ultimo fue liberado, y los otros seis, fueron trasladados a Parisgain para ser fusilados. Ambrosio consiguió escapar y los otros cinco fueron fusilados. En estos primeros meses de la guerra otros cuatro bergareses más correrán la misma suerte: Andres Alberdi, Gregorio Larrañaga Aranzabal, Francisca Oianguren y Faustino Garitano Askasibar (estos dos últimos vivian en Arrasate).

Con el objetivo de tener información y controlar a los habitantes de Bergara, el Alcalde mandó a todos los propietarios de viviendas del pueblo que hicieran una relación de los inquilinos que habían abandonado sus casas antes del 22 de septiembre. Se contabilizan en total, 1.253 personas.

4. Bergareses en los batallones y tercios

Durante el mes de octubre de 1936, se constituyen los batallones y el tercio de requetés.

- **Batallón Loyola:** Se formó en Gernika y quedaron a la espera de órdenes. Cuando se constituyó el Ejército Vasco fue el primer batallón creado. Los bergareses del batallón, entre otros, fueron: Lino Lazkano (comandante), Marcos Azkarate (capitán) y José Lete, Kepa Yarza, Hilario y Agustín Unzurrunzaga (tenientes).

- **Batallón UHP (Unión Hermanos Proletarios):** Se formó en Bilbao. La 3ª compañía la integraban bergareses y oñatiarras. Su capitán fue el bergráis Pako Unzurrunzaga y tenientes Ramón Arruabarrena e Ignacio Herrán.

- **Tercio Zumalakarregi:** La segunda compañía de este tercio de requetés estaba formada por bergareses. Su capitán era Gilberto Amasorrain.

5. El estratégico frente de Elgeta (del 4 de octubre del 36 al 23 de abril del 37)

Elgeta era un lugar estratégico en el avance de las tropas sublevadas hacia Bilbao. Este frente se mantuvo durante

naturek urriaren 4an eraso egin zuten Intxorta inguruetan, egunsenti eta arratsalde bitartean, Asentzio mendi aldean. Defendatu zutenek Txekoslobakiatik Bilbora iritsi ziren armak erabili zituzten. Horri esker, urriaren 7an Gernikan Euskadiko Lehenengo Estatutua onartu ahal izan zen, "Elgetako estatutua" deritzona. Euzko Jaurlaritzat eratu eta Jose Antonio Agirre lehendakari izendatu zuten.

Matxinatuek 1937ko martxoaren 31n Bizkaiko erasoa hasi zuten eta ekainaren 19ra arte ez ziren Bilbon sartu. Elgetako frontea Bilborako bidea ixteko zen. Nahiz eta Euzko Gudarostea armamentu gutxiago eta eskasagoa izan, batez ere hegazkin eta kanoiaiak.

1937ko apirilean Bergara matxinatuz bete zen. Elgetako eta Intxortako erasoa gertatzen ari dira. Egun batzuetan zehar, 19tik 24ra bitartean, hegazkin alemaniarrak eta italiarrak erabili zituzten bombardaketarako. Bergaran zeuden kanoiek ere lagundu zuten. Gudari eta milicianoek eutsi zioten behin eta berriz, baina 24ko arratsaldean Udalako frontea erori zenean eta Elorrio galdu zutenean, inguratuta ez gelditzeko, alde egin behar izan zuten. Elgeta suntsituta geratu zen.

Frankisten tropek Bizkaia bereganatzeko 80 egun behar izan zituzten, 40 kilometro egiteko. Tarte horretan borrokez gain, makina bat bombardaketa ere jasan behar izan zituen bertako biztanleriak. Ezagunena den kasua Gernika bada ere, beste herri askotan ere izan ziren; halanola Bilbon, Elorrion, Otxandion, Durangon edo Elgetan.

6 meses. El 4 de octubre, los sublevados atacaron el monte Intxorta desde el amanecer hasta el atardecer, hacia el monte Asensio. Los defensores utilizaron las armas compradas en Checoslovaquia en septiembre y que habían llegado al frente del norte desde Santander. Gracias a ello, el 7 de octubre en Gernika, se aprobó el primer Estatuto Vasco (llamado estatuto de Elgeta). Se formó el primer Gobierno Vasco cuyo presidente fue Jose Antonio Agirre.

Las tropas sublevadas iniciaron la ofensiva de Bizkaia el 31 de marzo de 1937 y consiguieron entrar en Bilbao el 19 de junio. El frente de Elgeta impedía el avance de las tropas aún cuando el ejército vasco dispusiera de menos armamento; especialmente de aviones y cañones.

En abril de 1937, Bergara se llena de tropas. Están preparando el ataque a Elgeta e Intxorta. Durante los días 19 al 24 de abril, los aviones alemanes e italianos bombardean esas posiciones; los cañones que están en Bergara se suman a la acción ofensiva. Los gudaris y milicianos aguantaron los ataques y combates hasta que el 24 de abril a la tarde cayeron los frentes de Udala y Elorrio. Se retiraron ante el peligro de quedar copados, abandonando las trincheras. Elgeta quedó destrozada.

Las tropas franquistas necesitaron 80 días para avanzar 40 kilómetros y conquistar Bizkaia. Además de los numerosos combates se sucedieron los bombardeos a la población civil. Aunque el caso más conocido quizás sea el bombardeo de Gernika, también bombardearon, entre otros, Bilbao, Elorrio, Otxandio, Durango y Elgeta.



Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.




Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



1936ko udara. San Martin plaza. Gasteizera joateko prestatzen.

Verano de 1936. Plaza de San Martín de Agirre. Preparados para ir a Vitoria.

Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



Tropa italiarrak Bergaran.
Tropas italianas en Bergara.

Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



Komenio kalea. Matxinatuen aldekoak kamioian.
Calle Convenio. Camión con simpatizantes de los sublevados.

Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



Tropa italiarrak Bergaran.
Tropas italianas en Bergara.

Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



Santa Marinako zubia. Segizioa kanposantuko bidean.

Puente de Santa Marina. Cortejo fúnebre camino del cementerio.

Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



Hileta elizkizuna kanposantuan.
Funeral en el cementerio.

Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



Gudari taldea Gernikako arbolaren aurrean.
Grupo de gudaris ante el árbol de Gernika.

Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



Bergarako Udal Artxiboa. Toribio Jauregi fondoa.

Egilea: Toribio Jauregi.



Loiola bataloiko kideak. *Miembros del batallón Loiola.*

Argazkia: J. R. Garai.



UHP bataloiko kideak. *Miembros del batallón UHP.*

Argazkia: Urriategiren alarguna.



Zumalakarregi tercioa. *Tercio Zumalacarregui.*

Argazkia: Gilberto Amosarrainen familia.



Tanke alemaniarrak plazan. Carros alemanes en la plaza.

BIBLIOGRAFIA

1. GARMENDIA, Jose Mari. *Ideologiak eta mugimendu politikoak Bergaran.* Bergara, Udala, 1992.
2. GIPUZKOA 1936 <http://www.gipuzkoa1936.com> web gunea [2012-02-10].
5. BARRUSO, Pedro. *La Guerra Civil en Gipuzkoa. Verano y Revolución.* Donostia, Haranburu, 1996. 118 eta 119 or.
6. CILLAN APALATEGUI, Antonio. *Sociología Electoral de Guipúzcoa.* San Sebastián, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1975. 630, 631, 662 eta 663 or.
7. GARAI, Juan Ramón. *Clandestinidad y Resistencia Comunista.* Tafalla, Txalaparta, 2008. 55 or.
8. GOGORATU GURAN TALDEA. *Gerrako Garrak Oñatiñ.* Oñati, Intxorta 1937 kultur elkartea, 2011. 189 or.
9. RODRIGUEZ RANZ, Jose Antonio. *Gipuzkoa y San Sebastián en las elecciones de la Segunda República.* Donostia, Instituto Doctor Camino-Caja de Gipuzkoa, 1994. 38 eta 39 or. eta hauteskundeetako eranskinak.
10. MURGIZU, Josuren. GARAI, Juan Ramón. *El buzo del fusilado.* Noticias de Gipuzkoa 20/10/2011.
11. VVAA. *Punto Final, Última testigo.* Oñati, Intxorta 1937 kultur elkartea, 2011. 120 or.

BIBLIOGRAFIA

1. GARMENDIA, Jose Mari. *Ideologiak eta mugimendu politikoak Bergaran.* Bergara, Udala, 1992.
2. GIPUZKOA 1936 <http://www.gipuzkoa1936.com> web [2012-02-10].
5. BARRUSO, Pedro. *La Guerra Civil en Gipuzkoa. Verano y Revolución.* Donostia, Haranburu, 1996. págs. 118 y 119.
6. CILLAN APALATEGUI, Antonio. *Sociología Electoral de Guipúzcoa.* San Sebastián, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones, 1975. págs. 630, 631, 662 y 663
7. GARAI, Juan Ramón. *Clandestinidad y Resistencia Comunista.* Tafalla, Txalaparta, 2008. pág. 55.
8. GOGORATU GURAN TALDEA. *Gerrako Garrak Oñatiñ.* Oñati, Intxorta 1937 kultur elkartea, 2011. pág. 189.
9. RODRIGUEZ RANZ, José Antonio. *Gipuzkoa y San Sebastián en las elecciones de la Segunda República.* Donostia, Instituto Doctor Camino - Caja de Gipuzkoa, 1994. págs. 38 y 39 y los anexos de las elecciones.
10. MURGIZU, Josuren. GARAI, Juan Ramón. *El buzo del fusilado.* Noticias de Gipuzkoa 20/10/2011.
11. VVAA. *Punto Final, Última testigo.* Oñati, Intxorta 1937 kultur elkartea, 2011. pág. 120.

ARTXIBOAK

1. Bergarako Udal Artxiboa.
 - Bergarako Udal artxiboa, azpifuntsa administratibo, signatura 02 C/1941-04
 - Bergarako Udal artxiboa, azpifuntsa administratibo, signatura 02 C/1161-01
 - Bergarako Udal artxiboa, azpifuntsa administratibo, signatura 02 C/1161-02
 - Bergarako Udal artxiboa, azpifuntsa administratibo, signatura 02 C/1941-03
 - Bergarako Udal artxiboa, azpifuntsa administratibo, signatura 02 C/0076-13
2. Archivo Militar Intermedio del Ferrol
3. Irargi. Euskadiko Dokumentu Ondarearen Zentroa (Bergara).
 - UHPko nominak, signatura PS Santander L, Rollo 03, caja 10
 - Loiola batailoiko nominak, signatura PS Santander L, rollo 43, caja 23, exp 1.
4. Archivo de Intxorta 1937 Kultur Elkartea.
Intxorta 1937 Kultur Elkarteko artxiboa.
5. Archivo de Aranzadi Zientzia Elkartea.
Aranzadi Zientzi Elkarteko artxiboa

ARCHIVOS

1. Archivo Municipal de Bergara
 - Archivo municipal de Bergara, subfondo administrativo, signatura 02 C/1941-04
 - Archivo municipal de Bergara, subfondo administrativo, signatura 02 C/1161-01
 - Archivo municipal de Bergara, subfondo administrativo, signatura 02 C/1161-02
 - Archivo municipal de Bergara, subfondo administrativo, signatura 02 C/1941-03
 - Archivo municipal de Bergara, subfondo administrativo, signatura 02 C/0076-13
2. Archivo Militar Intermedio del Ferrol.
3. Irargi. Centro de Patrimonio Documental del Gobierno Vasco (Bergara).
 - Nóminas de UHP, signatura PS Santander L, Rollo 03, caja 10
 - Nóminas del batallón Loyola, signatura PS Santander L, rollo 43, caja 23, exp 1.
4. Archivo de Intxorta 1937 kultur elkartea.
5. Archivo de Aranzadi Zientzia Elkartea.

Bergara 1936

Ordutegia:

asteartetik ostiralera	18:00 - 20:30
larunbatetan	12:00 - 14:00
igandeetan	18:00 - 20:30 12:00 - 14:00



AROZTEGI
ARETOA



Bergarako
Udala

